




Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo




Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

**“GAZTE ETORKINAK
EUSKARARA HURRERATU”
EGITASMOA – 2020**

BALANTZEA ETA JUSTIFIKAZIOA



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

AURKIBIDEA

I.- SARRERA / AURREKARIAK:

- 1.1.- ESTATISTIKAK.
- 1.2.- BUSTURIALDEKO INMIGRAZIO PLANA – GURE EKARPENAK.
- 1.3.- JARRAIPEN BATZORDE BERRIA

2.- HELBURUAK

3.- AZPIEGITASMOAK ETA NOLA BURUTU DEN

- 3.1.- GAZTE ETORKINEI BEGIRAKO EKINTZA PLANA (Eusliderrak)
- 3.2.- IKASTARO BEREZIAK
- 3.3.- KALE HEZITZAILEEN “GAZTERREN 2019” AZPIEGITASMOA
- 3.4.- ERAGILEAK ETA BAKOITZAREN LANAK
- 3.5.- BALIABIDEAK
- 3.6.- KRONOGRAMA


4.- BALORAZIO KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOA

5.- GASTUAK ETA DEFIZITA

- I. ERANSKINA: AHIZEren txostena (EUSLIDERRAK)
- II. ERANSKINA: Gernikako AEKren txostena (errefortzurako ikastaroak)



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

1.- SARRERA / AURREKARIAK

Egitasmoaren lehenengo pausuk 2006rako eratzerakoan eskuetan genituen estatistikei erreparatuz, ondo argi agertzen zitzaigun gure eskualdean etorkinen pilaketa aurreko lau/bost urteetako fenomeno zela, Euskal Herri osoan gertatu bezala.

Etorkinak, guztira, 1.700 bat 2017ko erroldan (biztanleriaren %10) eta euren adina aztertuz gero, 0-39 urte bitartekoen portzentajea %72,30 dela ateratzen zaigu eta horietatik honako datuak:


- 0-17 urte bitartekoena % 27,83a
- 18-39 urte bitartekoena % 55a

Beraz, eskoletara bideratzekoak heren bat eta erdiak lanean aritzeko adinekoak. Ikasteko gaitasuna oso-osoan mantentzen diren adin-tarteak izanik, hizkuntza berri batez jabetzeko duten trebetasunari eutsi behar diogula uste izan dugu egitasmo honi ekiterakoan. Hargatik, etorkin helduei dagokienean euskara ikasteko motibazioa landu behar dugu eta euren pertzepzioa lantzea, euskara beharrezko (lanerako, integratzeko, jolasteko, lagunak egiteko) dutela konturarazteko. Atal honetan txertatuta ditugu Gazte etorkinei begirako Ekintza Plana (GuGazte) eta Gazterren egitasmoa.

Ikasle etorkinak direla-eta, ez dugu esango bidea errazagoa denik, baina gure udalerrian D eredia nagusi dugun irakaskuntzan murgilduta, euskararako bidea berezkoa izan daitekeela esaten auzartzen gara. Dena dela, horretarako baliabide falta nabaria dute zentroetan eta ikasle etorkinei irakaskuntzan eta gizartean integratzeko laguntza eskaini beharrean aurkitu izan gara. Horretarako, Udal Eskola Kontseiluarekin eta Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatearekin elkarlanean, abian jarri ziren 2006an egitasmo honi lotutako jarduera berezi batzuk. Irakaskuntzari begirako atal honetan dihardugu lantzen errefortzuko ikastaroena iraungo urte askotan eta 2012an aintzat hartutako beste bati ekin zitzaion 2014an ere: Eusliderrak egitasmoa (zentro bateko DBH-ko etapa osoan eragiteko hizkuntza ohiturak eta aurreiritziak lantzeko esperientzia pilotoa).

Eusliderrak proiektua dela-eta, esan behar dugu bi urteko ibilbidea egin zuela Mertzede ikastetxeak (DBH 3. Mailan) eta berak hartuko zuela egitasmoaren garapenerako ardura, AHIZEren aholkularitzapean. Bestalde, 2016an Eusliderrak metodologia beste esparru batean erabili zen, kirolean hain zuzen (Gernika Futbol Taldeko gaztetxoaren taldeetan) emaitza oso onak izanik.

Metodologia horri eutsiz, 2017-2018 eta 2018-2019 ikasturteetan berriro jo genuen irakaskuntzara eta bi institutuetan (Gernika Institutua eta Barrutialde Institutua) garatzea adostu genuen zentro biek; 2019-2020 ikasturtean ere irakaskuntzan jarraitu dugu, DBHko 4. mailan institutu bietan aurreko ikasturteko "eusliderrak" aktibatuz.



1.1.- ESTATISTIKAK

IKASLEGO ATZERRITARRA BUSTURIALDEAN

IKASTETXEAK	IKASLEGOA 2013/2014	ETORKINAK 2013/2014	IKASLEGOA 2014/2015	ETORKINAK 2014/2015	IKASLEGOA 2015/2016	ETORKINAK 2015/2016	IKASLEGOA 2016/2017	ETORKINAK 2016/2017	IKASLEGOA 2017/2018	ETORKINAK 2017/2018
CEP ALLENDE	745	74 (9,9%)	751	51 (6,7%)	780	62 (7,9%)	790	59 (7,4%)	805	62 (7,7%)
CEP BARRUTIA	304	12 (3,9%)	295	17 (5,7%)	277	14 (5%)	287	5 (1,7%)	289	10 (3,4%)
IES BARRUTIALDE	270	8 (2,9%)	279	7 (2,5%)	281	6 (2,1%)	295	8 (2,7%)	309	14 (4,5%)
IES GERNIKA	788	20 (2,5%)	781	25 (3,2%)	763	37 (4,8%)	786	33 (4,1%)	792	27 (3,4%)
LA MERCED	288	111(38,5%)	294	140 (47,6%)	302	133 (44%)	298	137 (45,9%)	300	158 (52,6%)
SAN FIDEL	740	60 (8,1%)	757	60 (7,9%)	756	66 (8,7%)	789	68 (8,6%)	777	62 (7,9%)
SEBER ALTUBE	692	18 (2,6%)	709	18 (2,5%)	722	15 (2%)	732	21 (2,8%)	729	13 (1,7%)
MONTORRE	46	6 (13%)	48	4 (8,3%)	41	2 (4,8%)	40	3 (7,5%)	42	7 (16,6%)
MUNDAKA	146	4 (2,7%)	154	5 (3,2%)	151	3 (1,9%)	152	1 (0,65%)	158	1 (0,63%)
UCELAY (Busturia)	123	1 (0,8%)	112	2 (1,7%)	105	1 (0,9%)	111	1 (0,9%)	117	2 (1,7%)
URRETXINDORRA	98	4 (4%)	103	3 (2,9%)	101	2 (1,9%)	99	2 (2%)	107	9 (8,4%)
PUBLIKOAK	2.520	129 (5,1%)	2.523	114 (4,5%)	2.499	127 (5%)	2.560	112 (4,3%)	2.619	132 (5%)
KONTZERTATUAUAK	1.720	189 (10,9%)	1.760	218 (12,3%)	1.780	214 (12%)	1.819	226 (12,4%)	1.806	233 (12,9%)
OROKORRA/TOTAL	4.240	318 (7,5%)	4.283	332 (7,7%)	4.279	341 (7,8%)	4.379	338 (7,7%)	4.425	365 (8,2%)

63,8% ZENTRO KONTZERTATUETAN ETA %36,2 PUBLIKOETAN


Gernika-Lumoko Hasierako Lanbide Prestakuntzako Ikastetxea (Ile-apainketa): 30 ikasle (%33 atzerritarrak)

Fuente/Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Bizkaia)/ Departamento de Educación, Universidades e Investigación (Bizkaia).





Gernika-Lumoko Udaketa
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen Hiria
UNESCO Sariak
2002 - 2003


Ikasle etorkinak etapaka Busturialdean

IKASLEGO ATZERRITARRA MAILAREN ARABERA/ ALUMNADO EXTRANJERO POR ETAPAS											
	2010/2011	2011/2012	2012/2013	2013/2014	2014/2015	2015/2016	2016/2017	2017/2018	ALDAKETAK		
HAUR HEZKUNTZA	74	115	104	101	106	108	116	119			+3
LEHEN HEZKUNTZA	128	156	161	143	135	132	120	150			+30
DBH/ DERRIGORREZKO BIG. HEZK.	67	76	63	66	84	89	87	79			-8
BATXILERGOA	3	3	5	5	4	8	12	12			-
LANBIDE/FP (Erdi maila)	1	3	3	2	3	4	2	2			2
LANBIDE/FP (Goiko maila)	5	4	2	1	0	0	1	3			+2
OROKORRAK	278	355	338	318	332	341	338	365			+27

Gernika-Lumoko zentroetan 346 ikasle etorkin (matrikula guztien %9).


Gure eskualdeari eta udalerriari dagokionean, hurrengoak azpimarratu behar:

- **Berezitasuna.**- Beste udalerri batzuetan sare publikoak jasaten du ikasle etorkinen pilaketa eta Gernika-Lumon, ostera, zentro kontzertatuetan (%63,8) dago pilaketa. Egoera hau gure eskualdeko berezitasuna da, Euskal Autonomi Erkidegoko datuen arabera ikasle atzerritarren %75 sare publikoan baitago matrikulatuta. Gure eskualdean egoera orekatzeko joera apurto egin da eta berriro doa gora atzerritarrek zentro kontzertatuetan matrikulatzeko jokabidea (2008/2009 ikasturtean ikasle atzerritarrek %66 zentro kontzertatuetan; 2017-2018 ikasturtean berriro %63,8).





Gernika-Lumo Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria

UNESCO Sariak
2002 - 2003

- **Arriskua.**- Mertzede ikastetxean aurreko urteetan gertaturiko pilaketa harrizkoa izanda, Udal Eskola Kontseiluak orain dela urte batzuk hausnarketa egin zuen eta, etorkinen integrazioarako noraino kaltegarri izan zitekeen kontuan izanda, halako getolakoak ekiditzeko etorkinak matrikulatzeko orduan zentro guztien arteko oreka bilatu behar zela ebatzi zen. Horretarako, konpromisoa hartu zuten guztiek eta matrikulazioaren bilakaera kontrolatzeko urtean bi batzar egitea ere, Berritzeguneko teknikariak barru.
- **Indargunea.**- Atzerritarrak matrikulatzen diren erodei erreparatuz, guztiak daude matrikulatuta D ereduko ikastetxeetan, Barrutialden dauden 37 ikasleen kasua salbu (B eredukoak dira eta ez dakigu horietatik zenbat diren atzerritarrak). Mertzede ikastetxeak maila guztietara hedatu du D eredua urte askotako prozesua ondoren.
- 2011n 355 matrikula ziren atzerritarrenak eta urte batzuetan moteltzen hasi zen kopuru hori berreskuratu egin da 2017-2018 ikasturtean (365) eta gainditu zeozer.



ATZERRIKO BIZTANLERIA BUSTURIALDEKO MANKOMUNITATEAN (2020)

1. Atzerriko biztanleriaren bilakaera, 2019-2020.

	2019ko URTARRILAREN 1ean			2020ko URTARRILAREN 1ean			
	Biztanleria orokorra	Atzerritarrak	%	Biztanleria orokorra	Atzerritarrak	%	Aldaketa
AJANGIZ	474	10	2,1	470	8	1,7	-2
ARRATZU	419	17	4	415	15	3,6	-2
BUSTURIA	1.612	54	3,3	1.645	77	4,6	+23
EA	836	52	6,2	822	58	7	+6
ELANTXOBE	349	11	3,1	348	11	3,1	-
EREÑO*	259	13	5	267	14	5,2	+1
ERRIGOITI	485	17	3,5	490	17	3,4	-
FORUA	916	60	6,5	909	54	5,9	-6
ARTEAGA	838	48	5,7	829	43	5,1	-5
GERNIKA	17.056	1.849	10,8	17.154	1.901	11	+52
IBARRANGELU	632	22	3,4	638	21	3,2	-1
KORTEZUBI	441	24	5,4	447	22	4,9	-2
MENDATA	383	25	6,5	386	21	5,4	-4
MORGA	411	14	3,4	408	15	3,6	+1
MUNDAKA	1.860	68	3,6	1.850	71	3,8	+3
MURUETA	317	9	2,8	321	8	2,5	-1
MUXIKA	1.475	98	6,6	1.483	92	6,4	-6
NABARNIZ	254	10	3,9	247	10	4	-
SUKARRIETA	336	9	2,6	331	5	1,8	.4
GUZTIRA	29.353	2.410	8,2	29.460	2.463	8,3	+53

Iturria: biztanleen udal-errola.

- 1) Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten 19 udalerrietan beste herrialde batzuetako 2.463 pertsona daude errolatuta, biztanle guztien %8,3 alegia. Espainako nazionalitatea jaso duten atzerritarrak kontuan hartzen badira portzentai handiago dugu (%9,2); Euskal Autonomia Erkidegoan (%10,9) eta Estatuan (%15,2) dagoenarekin konpartuz gero baxuagoa da.
- 2) 2019tik 2020ra bitartean errolatuta dauden atzerritarren kopurua handitu da, 2.410 lagun izatetik 2.463 izatera, hori da 53 lagun gehiago. Joan den urtean 217 lagun gehiago errolatu ziren eta 2017tik 2018ra 132 gehiago. Erroldaketa berrien erritmoa moteldu dela esan dezakegu.
- 3) Kontuan hartu behar da Espainiako nazionalitatea gero eta etorkin gehiagok jasotzen dutela, batez ere Latinoamerikatik iritsitakoak, eta, horrenbestez, nahiz eta eskualdean bizi izan errolatan ez direla atzerritar gisa ageri. 2019an 37 atzerritarrek jaso zuten nazionalitatea. Beraz, 2.463 lagun horiei nazionalitatea jaso dutenak gehitu behar dira: 268 lagun 2013tik. Nazionalitaterik ugariena: boliviarra (39), argentinarra (27), ekuadortarra (19), brasildarra (19), kolonbiarra (18), venezuelarra (18), sahararra (13) eta marokiarra (13).

- 4) Atzerriko biztanleriaren %46,6 Europako Batasunetik kanpoko herrialdeetatik etorritakoa da (1.146 lagun) eta Europako Batasunetik etorritako 1.317 biztanleetatik %87,5 errumaniarrak dira. Nazionalitatekerik ugariak: errumaniarra (1.153 lagun), marokoarra (122), nikaraguarra (90), brasildarra (88), argentinarra (77) eta moldaviarra (73).
- 5) Gehien handitu diren taldeak: nikaraguarra (24 lagun gehiago), kolonbiarra (15 gehiago) eta venezuelarra (13 gehiago).
- 6) Emakumeak eskualdeko etorkin guztien %51,3 dira.
- 7) Mankomunitatean bizi diren atzeritarren %77 Gernika-Lumon biltzen dira (1.901 lagun). Udalerri honen biztanleriaren %11 beste herrialde batzuetatik dator. Espainako nazionalitatea jaso duten atzeritarrak kontuan hartzen badira portzentaia %12koa da. Azken hamabi hilabeteotan, erroldatutako etorkinen kopurua dezente handitu da (52 lagun gehiago). Gehien handitu diren komunitateak: nikaraguarra (22 gehiago), kolonbiarra (13 lagun gehiago) eta venezuelarra (11 gehiago).

2. Biztanlego atzeritarra Busturialdean. 2005/2020 bilakaera.

URTEA	BIZTANLERIA OROKORRA	ATZERRIKO BIZTANLERIA	%
2005	26.276	1.049	3,9%
2006	27.513	1.279 (+230)	4,6%
2007	27.657	1.418 (+139)	5,1%
2008	28.173	1.676 (+258)	5,9%
2009	28.381	1.835 (+159)	6,4%
2010	28.484	1.818 (-17)	6,3%
2011	28.687	1.975 (+157)	6,8%
2012	28.951	2.175 (+200)	7,5%
2013	28.506	2.173 (-2)	7,6%
2014	28.990	2.010 (-163)	6,9%
2015	28.967	1.996 (-14)	6,8%
2016	28.979	2.058 (+62)	7,1%
2017	28.989	2.061 (+3)	7,1%
2018	28.936	2.193 (+132)	7,5%
2019	29.353	2.410 (+217)	8,2%
2020	29.460	2.463 (+53)	8,3%

*Parentesi arteko datak azken urteko jaistek ala hazkundeak dira.

1.2.- INMIGRAZIO PLANAREKIKO UZTARKETA

2005ean eratu zen I. Inmigratio Plana, 2008an bigarrena eta 2013-2016 eperako hirugarrena. Hiruretan hartu zuen parte Euskara Zerbitzuak eztabaidarako foroetan eta bere ekarpenak ere egin zituen; ekarpen horiek onartuak edo ez izatea baino gure helburu nagusia EBPNrekiko uztarketa eta loturak sendotzea izan da beti eta uste dugu lortu dugula.

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuetarako Mankomunitateak eratu Inmigrazio Planean aintzat hartutako ekintzez gain, uztarketa horren frogagarri dira hurrengo koordinazio eta elkarlan guneak:

- Inmigrazio teknikariaren parte hartzea Udal Eskola Kontseiluan eta AHIZEk garatzen duen Eusliderrak egitasmoaren jarraipenerako institutuekin eratutako hausnarketa taldea.
- Mankomunitateko Gizarte Hezitzaileen Eskuartze Taldearen jarduna AHIZEren Ekintza Planarekin duen lotura eta alde bien arteko elkarlana.
- Mankomunitateak urtero gauzatzen duen Gazterren egitasmoa, 9-15 urte bitarteko gaztetxoei begirakoa (eskolan eta familia giroan arazoak dituzten gaztetxoei zuzendua eta parte hartzen dutenen %50 gazte etorkinak dira); 2019-2020 ikasturtean ezin izan da burutu pandemia bitarteko.

2. HELBURUAK

Indarrean dagoen ESEPen arabera moldatutako 2019ko Kudeaketa Planean aintzat hartutako ekintza eta azpiekintzei jarraiki eratu eta gauzatuko da honako egitasmoa:

Helburu estrategikoa: Euskararen transmisioa / ondorengoetaratzea.

Esparrua:

2. Irakaskuntza

2.6. Ikasle etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea

2.6.1. Kanpotik etorritako nerabeengan arreta berezia jartzea eta haientzako programa bereziak garatzea

- 2.6.1.1.- DBHko ikasle etorkin elikastaro bereziak eskaini, euskara ikasi eta sendotzeko

Helburu estrategikoa: Euskararen erabilera

7. Aisia eta kirola

7.7. Etorkinen integrazio zabala eta aberasgarria ahalbidetzeko euskarazko aisialdi programa egokiak antolatzea (Toki erakundeak)

7.7.1. Aisialdi-programetan bertakoen eta etorri berrien arteko elkarguneak sortzea

- 7.7.1.1.- Etorri berrien integratza bideratutako aisialdi programak bideratu (gazte etorkinak euskarara urreratzeko egitasmoa)

3.- AZPIEGITASMOAK ETA NOLA BURUTU DIREN

Premiazko egoerak bultzatuta, gazte etorkinen esparruan eragiteko 2006an abian jarri genuen ikasle etorkinen errefortzurako egitasmoa, presaka behar bada, euskaltegiekin eta irakaskuntza zentroekin elkarlanean. Gero etorri zen Gizarte Zerbitzuetarako Mankomunitateko Kale Hezitzaileekin ekiteko gogoia eta aukera ezin hobia: Gazterren egitasmoa.

2008an, gauzak apalago eta patxadaz hartzearen, hurrengo urteetarako ekinbideak argitu beharrean aurkitu izan ginenez, beste azpiegitasmo bat gauzatzeari ekin genion: Gazte etorkinei buruzko diagnostikoa burutzea 2009an. I. Ekintza Plana garatu zen 2010ean eta bederatzigarrenari ekin zitzaion 2018an.

2011n aurreikusi gabeko egitasmo bati eutsi genion, sarrera-idatzian aipatua: Eusliderrak egitasmoa (zentro bateko DBH-ko etapa osoan eragiteko hizkuntza ohiturak eta aurreiritziak lantzeko esperientzia pilotoa). Eusliderrak proiektua dela-eta esan behar dugu hiru urteko ibilbidea ondoren, Mertzede ikastetxeak berak hartu zuela egitasmoaren garapenerako ardura, AHIZEren aholkularitzapean eta trebatze ikastaro bat eskaini zitzaizela irakasleei horretarako. Honakoa “GUGAZTE” proiektuaren adar bihurtu genuen 2015ean.

2016an baina, Eusliderrak metodologiarekin beste esparru bat landu zen: Kirol arloa, Gernika Futbol Taldeko gaztetxoek bi talde; 2017rako irakaskuntzara bueltatzea pentsatu eta halaxe burutu genuen institutu bietan (Gernika institutua eta Barrutialde Institutua) DBH 4. Mailako ikasleekin. Esperientzia horri eutsi egin zaio 2018an eta 2019an. Orain, jarraipena izan du 2020an, pandemiaren eraginpean, baldintzapetuta.

3.1.- GAZTE ETORKINEI BEGIRAKO EKINTZA PLANA (Eusliderrak)

Abian ditugun azpiegitasmoak hobeto ekiteko eta ekintza-esparru berrietara jotzeko, hau da, esparru formalean ez ezik esparru ez-formalerako tratamendua zehaztearen, gazte etorkinen munduari buruz 2008an egindako diagnostikoa oinarri, Ekintza Plan bat garatzen da urtero. Hamabi urtetik hogeita lau urtera arteko gazte etorkinen unibertsoa langai, 3 azpitaldetan banatuta:

- A 12tik 15era artekoak
- B 16tik 19ra artekoak
- C 20tik 24ra artekoak

Honakoa, AHIZE-AEK hizkuntza aholkularitzarekin Udalak 2009an sinatu zuen hitzarmenaren jarraipena da.

Bestalde, Euskararen erabilpena areagotzea dela-eta, AHIZE enpresak proposamen bat aurkeztu zion Gernika-Lumoko Udalarari 2011ko ekainean, “Eusliderrak” delako egitasmoa. Berau, Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultateak egindako ikerketetan oinarritua dugu, giza multzo berezietan aplikatu eta hizkuntza ohituretan eragiteko metodologia erabiliz.

Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Zerbitzuak AHIZE enpresarekin hausnarketa egin ondoren, egokitzat jo zuen Berrizko Institutuan garatutako esperientzia pilotuan oinarritu eta Gernika-Lumon ere DBH mailan aplikatzea, Mertzede ikastetxeko DBH-ko 3. mailan hain zuzen. Hautaketaren arrazoiak: ikastetxe txikia, gela oso bat lantzeko aukera eta maila bakoitzeko gela bakarra, B eredukoa eta ikasle etorkinen portzentajea ia %50koa zuena. Aurrekoak kontuan hartuta, egitasmoak eraginkortasun handia izan zezakeen erakunde osoan. Gainera, Mertzede ikastetxeko arduradunekin batzartu eta atseginez eutsi zioten aukera horri. Burutu zen, bada, lehenengo esperientzia hori eta hurrengo urteetan jarraipena izan du (2014an III. zikloan garatu zen).

Eusliderrak proiektua dela-eta esan behar dugu hiru urteko ibilbidea ondoren Mertzede ikastetxeak berak hartu zuela egitasmoaren garapenerako ardura, AHIZEren aholkularitzapean.

Hori horrela, GU-GAZTE egitasmoa eta EUSLIDERRAK egitasmoak uztartzea erabaki genuen 2016an, lehenengo udalerrri mailan burutzekoa eta, bigarrena, gazte multzo berezi bati zuzendua (2016an Gernika Futbol Klubeko gaztetxoek bi taldetan erabili izan zen metodologia hori). Bietan xede taldea 12-18 urte bitarteko gazteak izan ziren, gaztetxo etorkinen integrazioa modu berezian lantzea helburu.

Mertzede ikastetxean egin genuen bi urteko esperientzian oinarrituta, azken hiru urteetan burutu dugun “Eusliderrak” egitasmoa 2020an errepikatzea egokitzat jo dugu, aurreko ikasturteko “eusliderrak” ere aktibatu ahal izateko.

3.2.- ERREFORTZURAKO IKASTARO BEREZIAK

2007-2008 ikasturterako, Udal Eskola Kontseiluak 2007ko irailaren 20an egindako bileran hausnartutakoa oinarri hartu zen erabakia ekarri behar gogora: “DBH mailako gazte etorkinek euskara landu dezaten, errefortzua eskaintzea ikastaro bereziak eratuz”.

Ordutik hona, errepikatu egin da esperientzia urtero eta Udal Eskola Kontseiluak egiten dituen batzarretan egiten da iragan ikasturteko hausnarketa eta berrirako egokipena. Hona hemen 2019ko irailaren 21ekoa:

“... ”

- 16 ikasle guztira (9 A1 mailan eta beste 7 B1 mailan); 60 orduko ikastaroa, azarotik

- *Asistentzia: 9k oso ona, 5ek nahikoa eta 2k txarra. Asistentzia faltaren arrazoiak ez dira beti borondate faltagatik, beste arazo batzuk baino: familiarrak, lanekoak, ...*
- *Helburuaren betetze maila:*
 - *2k ez dute ezer aprobetxatu*
 - *1ek motel*
 - *7k ondo*
 - *3k oso ondo*
 - *3k bikain*

Inmigrazio teknikariak adierazi du gogoan duela aurreko urteetan ikasle kopurua gehiagokoa zela, 26 eta antzeko kopuruak.

AEKko ordezkariak erantzun dio azken urteetan arazoak izan direla ikasleak erakartzeko, beste lehentasun batzuk dituztelako (futbol eta beste kirol mota batzuetako entrenamenduak, ...).

Hausnarketa egin ondoren, 2018-2019 ikasturterako hauxe erabaki da:

1).- Orain arteko eskemari eutsiko zaio (bi talde, A1 hasiera maila eta B1 hobekuntza maila).

2).- Zentroetako zerrendak jasotzeko epe muga: URRIAK 5. Ikasle bakoitzaren fitxa:

- *Izen-abizenak.*
- *Jatorria eta udalerrira noiz etorria.*
- *Ikasketa maila eta euskara maila (“0” edo “hobekuntza”)*
- *Kontakturako eta jarraipenerako telefono zenbaki bat.*

3).- Egunak, bi astean, aurkezpen egunean finkatuko dira. Ordutegia: arratsaldeko 5:00etatik 6:30era. Ikastaroaren ordu kopurua: 60 ordu.

4).- Ikastaroa Seber Altube ikastolan garatuko da; 2011ko ekainaren 17ko bilkuran erabakitakoari jarraituz, honako konpromisoa hartu zen ikastaroen lekuari dagokionean:

- *2016-2017/2017-2018 ikasturteetan: Gernika Institutua*
- *2018-2019/2019-2020 ikasturteetan: Seber Altube Ikastolan.*
- *2020-2021/2021-2022 ikasturteetan: Mertzede Ikastetxea.*
- *2022-2023/2023-2024 ikasturteetan: San Fidel ikastolan.*

.....”

Beraz, 2007an finkaturiko ildoari jarraiki, hurrengo ikasturteetan ere bi ikastaro antolatu izan dira, bakoitzean bi talde izanik, oinarrizkoa edo zero maila (60 ordu) eta hasiera maila (60 ordu). Urtero egiten izan diren udako ikastaroak ezin izan dira burutu azken urteetan, aurrekontu murrizketa bitarteko.

3.3.- KALE HEZITZAILEEN “GAZTERREN 2019-2020”

Derrigorrezko jo genuen bere sasoian Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatearekiko zubiak eraiki eta elkarlanari eustea, eurak direlako etorkinekin lehenengo harremana dutenak eta eskaintzen zaizkien laguntza guztien arduradunak.

Beraz, kale hezitzaileen zerbitzuarekin elkarlanari ekitea adostuta daukagu, euren lanetan laguntzeko eta euskararen normalizazioari begira gure aholkularitza eta baliabideak eskaintzeko. Lan esparru interesgarria guretzat, tratatzen dituzten gazteak familia arazoak dituztenak izanik eta euretako erdiak etorkinak direlako.

Integrazioa lantzeko hizkuntzarena lantzea behar-beharrezko jotzen dugu eta horregatik bideratu izan da diru-laguntza berezi bat zerbitzu horrekin elkarlanean eratzen den “Gazterren” egitasmoa aurrera ateratzeko. Tamalez ezin izan da garatu programa hau, pandemiak oztopatu egin duelako nabarmen (partaideak udalerrri eta irakaskuntza zentro desberdinetakoak, ...).

3.4.- ERAGILEAK ETA BAKOITZAREN LANAK

- Euskara Zerbitzua (ardura orokorrak):

- Egitasmoa eratu eta garapena koordinatzeko ardura nagusia.
- Batzarretarako deialdiak egin eta idazkaritza lanak bete.
- Plan Estrategiko berria oinarritutako 2018ko Kudeaketa Planean diru-baliabideak finkatu egitasmoa garatu ahal izateko.
- Azpi egitasmoen garapenari jarraipena egiteko ardura nagusia.

- Udal Eskola Kontseilua (errefortzurako ikastaro bereziak):

- Partaide udalerriko irakaskuntza zentro guztiak.
- Inplikaturiko gainerako eragile guztien bilgunea.
- Bertan erabaki dira egitasmoa garatzeko orientabide nagusiak.
- Jarraipenaren eta emaitzen berri emateko bilgunea.
- Gernika Institutua eta Barrutialde Institutuaren inplikazio berezia, Eusluderrak egitasmoa zentro horietan garatzeko.

- Berritzegunea (errefortzurako ikastaro bereziak):

- Udal Eskola Kontseiluko partaide berezia.
- Matrikulazioaren gora-beheretako arduraduna, egitasmoarekin zerikusia duen neurrian.
- Bere ardurapean dagoen ikasle etorkinen inguruko “Mintegia” izango da egitasmoari buruzko metodologiaren oinarriak finkatzeko bilgunea (euskaltegiak barru).

- **AEK Euskaltegia (errefortzurako ikastaro bereziak):**
 - Euskara Zerbitzuarekin estu-estu ekin diote egitasmoaren zehaztasunak lantzeko.
 - Parte hartzea Berritzeguneko Mintegian metodologiaren inguruko zalantzak argitzeko.
 - Euren ardura da ikasle etorkinei eskaini zaizkien ikastaroetako ekintza alternatiboak eta programazioaren zehaztapenak egitea, Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean.
 - Programazioa behin finkatuz gero, Udal Eskola Kontseiluan aurkeztea, behinbetiko onarpena izatearren.

- **AHIZE-AEK hizkuntza aholkularitza (Etorkin gazteak euskal mundura erakartzeko Ekintza Plana” eta “Eusliderrak”-2020):**
 - Udalarekin 2009an sinatutako hitzarmena bitarteko, 2019koa egokitu da.
 - AHIZE-ko teknikaria arduratu azpiegitasmo horien koordinazio eta garapenaz.

- **Gizarte Zerbitzuetako mankomunitatea (Etorri berri gazteak euskal mundura erakartzeko Ekintza Plana / Gazterren 2019-2020).-** Azpiegitasmo hau ezin izan da garatu, dituen ezaugarri bereziengatik (gaztetxoak udalerrri eta irakaskuntza zentro ezberdinetakoak.

3.5.- BALIABIDEAK

- **Giza baliabideak:**
 - Euskara Zerbitzuko lanak HNT Teknikariak bete ditu.
 - Berritzegunearen aldetik, matrikulazioaren jarraipenerako ardura duen Teknikaria eta Euskara Teknikaria (Berritzeguneari ikasle etorkinen ingurukoa aztertzeko daukan mintegia berak zuzendu du).
 - Gernika Institutua eta Barrutialde Institutuko DBH 4. Mailako tutoreak, Eusliderrak egitasmoa garatzeko.
 - AEK Euskaltegiko zuzendariak (2), egitasmoa eratu eta jarraipenerako ardura izan du, eta irakasleak/dinamizatzaileak (2), programatutakoa garatzeko arduradunak.

- Gizarte zerbitzuetako mankomunitatekoak: Inmigrazio Teknikaria eta 2 kale hezitzaile.
- AHIZE-AEK-k garatu dituenak:
 - Ekintza plana koordinatu eta garatzeko teknikaria (astean 8 orduz aritu da). Koordinazio bilerak.
 - Ekintza planean aintzat hartu da “Eusliderrak” proiektuaren garapenerako aholkularitza (hiru hilabeteko iraupena): garapenaz arduratu den teknikaria eta AHIZE aholkularitzako teknikaria (laguntza tekniko).

- Diru eta material baliabideak, Euskara Zerbitzuarenak:

- 2019ko Kudeaketa Planean aurreikusitako partida bereziak egitasmoa garatzeko (Ekintza planarena –Eusliderrak-, eta errefortzurako ikastaroena).
- Materialak eta lokalak lortzeko gestioak egiteko ardura izan du.

3.6.- KRONOGRAMA

Azpiegitasmoak	Urtean zeharreko garapena											
	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	IRAI	URR	AZA	ABEN	
Ikastaro bereziak 2018-2019												
Batzarrak Esk. Konts. Eta euskaltegiak (jarraipena)		2020						2019	2019			
Metodologia eta programazioa landu (Euskalt. / Berritzegunea)								2019	2019			
Ikastaldeak eratu												
Ikastaroak eman										2019	2019	
Eusliderrak 2019-2020	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	IRAI	URR	AZA	ABEN	
Koord / Antol / Hausn / Eusliderrak												
Eusliderrak / Tailerrak												
Eusliderrak / ekintza soziala												
Eusliderrak / Balorazioa												

4.- BALORAZIO KUANTITABOA ETA KUALITATIBOA

Balorazioa kuantitatiboa

- **Gazte etorkinen diagnostikorako prozesua** betetzerakoan 23 eragilek hartu zuen parte. Horietatik, garrantzitsuenak partaide izan dira jarraipen bileretan (Inmigrazio teknikaria, Mertzede ikastetxea,...)

- **Eusliderrak azpiegitasmoa** zuzenean landu da 100 bat gaztetxorekin (Gernika Institutuko eta Barrutialde Institutuko DBH 4. Mailako ikasleak) eta gainerakoa DBH-ko ikasleengan eragina izatea espero da (neurketak bereziak egin behar horretarako). Zeharbidetik, gaztetxo horien gurasoengan ere eragina izatea espero, hau

- **Ikasle etorkinei errefortzurako ikastaroak.** Ikastaroetarako xede taldea 70 ikaslekoa izanik (DBHn matrikulatuta dauden ikasle etorkinak), ikasturteko ikastaroetan 15 ikaslek hartu dute parte. Beraz, parte hartu du xede taldearen %22ak.

Balorazioa kualitatiboa

Ikasle etorkinei errefortzurako ikastaroak. AEK euskaltegiak emandako txostenetatik ondorioztatu dugu emaitzak ez direla izan hain positiboak oraingoan.

Asistentzia aldetik arazoak izan dira eta ikastaroan zehar ere baja pare bat izan dira. Hausnarketa ostean, ikastaroaren jarraipenerako zentroekiko lotura sendotu beharra ikusi da.

Aurrera begirako proposamena

Ikasle etorkinei errefortzua eskaintzeko ikastaroei dagokienean, asko estimatzen da ikastetxeetan, baina murriztu egin da ikasle kopurua. Agian, heziketa prozesuan integratzen diren ikasleak gero eta gutxiago dira adinean sartuak eta txiki-txikitatik hasitakoak hizkuntza bereganatuta dute DBH mailara iritsi orduko. Beraz, beharrezana gutxituz joan den arren, mantendu egin behar da eskaintza behar den neurrian.

Eusliderrak egitasmoari dagokionean, 2020an institutueta aritu izan gara DBH 3. Mailako ikasleekin eta emaitza oso onak lortuz. Ez da izan gauza berria guretzat,

aurreko ikasturteetan esperientzia pilotuak garatu izan dira maila berean eta aurreko urteetan Mertzedeko ikastetxean eta.

5.- AURREKONTUA

Gastuak

Ikasturtean zehar errefortzurako ikastaroak (AEK euskaltegia)	1.794,60	2.991,00
	1.196,40	
Ahize-AEK aholkularitza: Eusliderrak egitasmoa institutuetan (dinamizaziorako teknikaria)		4.220,00
GUZTIRA		7.211,00

Diru sarrerak

Bizkaiko Foru Aldundiaren diru laguntza GUZTIRA	459,72,00
--	-----------

Defizita

Gastuak	7.211,00
Diru sarrerak	459,72
Defizita guztira	6.751,28

Gernika-Lumon, 2020ko urtarrilean.

Iñigo Magunagoikoetxea Agirre
EUSKARA ARLOKO ZINEGOTZIA



Bittor Zarrabeitia Bengoa
HIZKUNTZA NORMALIZAZIORAKO TEK.

I. ERANSKINA

**AHIZEren txostena
(EUSLIDERRAK – 2020)**

Barrutialde Institutua

Balorazio txostena



III. zikloa
garena izateko tailerra

eusLiderrak

2020ko ekaina



0. Aurkibidea

1. SARRERA.....	03. or
2. BALORAZIO OROKORRA.....	04. or
3. AZTERGAIAK.....	05. or
4. IRAKURKETA.....	07. or
5. ZENTROAREN BALORAZIOA	10. or
6. ONDORIO NAGUSIAK	11. or
7. EGOERA BERRIA DELA ETA.....	11. or



gernika-lumoko
euskara zerbitzua



1. Sarrera

Hizkuntza ohiturak aldatzeak, beste edozein ohitura aldatzeak bezala, ahalegin bat eskatzen du. Ez da oraindik asmatu horren ordezeko pilularik. Baina aldaketa hori modu **atsegin** eta **dibertigarrian** egin daiteke, ez du zertan sufrimenduan oinarriturik egon. Horretarako, garrantzitsua da aldaketa pausoz pauso ematea, unean uneko **helburu lorgarriei** eutsiz, eta, **parte hartzaileen interes** arlo eta **motibazioetatik** ahalik eta gertuen.

Ikerketek erakutsi dute jendearen portaera aldatzeko bideak badirela. Gainera, zigorrik gabe norberak borondatez egin dezakeela aldaketa. Hainbat arlotan ikus dezakegu hori: kontsumoan, ohitura osasungarrien hedapenean... Azken urteetan aurrerapen handiak eman dira portaeren eta gizartearen psikologian, eta horietatik edan du Ahize-AEK hizkuntza aholkularitzak hizkuntza portaerak aldatzeko egitasmoa martxan jartzeko.

Horiek horrela, 2017-18 ikasturtean Gernikako institutuak eta Barrutialde institutuak, Gernika-Lumoko Udalarekin eta Ahize-AEK hizkuntza aholkularitzarekin, eusLiderrak egitasmoaren 1. zikloa martxan jarri zuen Gernikako institutuko eta Barrutialde institutuko 3.DBHko ikasleen artean erabilera informala sustatzeko helburuarekin. Egitasmo ziklikoa da eusLiderrak, eta lehendabiziko zikloan erabileran eragin dugun aztertzen da. 2018-19 ikasturtean 2.zikloa burutu zen.

2019-20 ikasturtean, **eusLiderrak tailerraren 3. zikloa** abiatu da.

eusLiderrak egitasmoa 2. ziklotik aurrera berezia da, izan ere, aurreko zikloan tailerra jaso zuten ikasleak, aritzen direlako dinamizatzaile, beraiek hartzen dute tailerraren gidaritza, Ahize-AEK-ko teknikarien eskutik horretarako formazioa jaso ondoren.

Aurten, 2019-20 ikasturtean, aipatutako **3. zikloa jarri dute martxan** bi institutuek. Eta iaz 3. DBHn tailerra jaso zuten eusLiderrak, aurten 4. mailan daudenak, aritu dira 3. mailakoei tailerra ematen.

eusLiderrak egitasmoaren **3.zikloko** 1. ("moskeo" kanpaina) eta 2. faseak (3 saioak) 2019ko azarotik abendura bideratu dira. Barrutialde institutuan, 4 taldetan eman dira tailerrak, zehazki 42 ikasleri. **3.zikloko** 3.fasea (ekintza soziala) otsaila-apirila bitartean garatu behar zuten ikasleek Ahizeren aholkularitzarekin, baina COVID-19a dela eta, etenda geratu da eta 3. fasea irail-urrian gauzatuko dugu.

Txosten honetan eskerrak eman nahi dizkiegu 4. DBHn eusLiderrak egitasmoan dinamizatzaile aritu diren **ikasle eusLiderreri**, egin duten lan oparoarengatik eta horretarako izan duten prestutasunagatik. Benetako lan txukuna egin dute.

Ikasleez gain, eskerrak eman nahi dizkiogu Barrutialde institutuko Goizalde Gezuragari, behar izan dugun une guztietan emandako laguntzagatik. Bestetik, Gernika-Lumoko Udalari eskerrak eman nahi dizkiogu, 3. ikasturtez, gazteei begirako eusLiderrak tailerraren alde egindako apustuagatik.

2. Balorazio orokorra

Proiektuaren balorazioa positiboa da. 1. eta 2. faseko ekintza guztiak burutu dira eta eragina izan dute. Jarraian proiektuaren balorazioak atalez atal:

1.FASEA, "moskeo" kanpaina:

Ikasleek balorazio positiboa egin dute. Hasiera batean ikusitako irudiak, euskaraz hitz egiten zuten ikasleei bestelako azalpenik gabe piruleta urdina eman... ekintzek balorazio positiboa izan dute. Balorazio positibo hori 3.faseko saioetan jaso da ikasleen eskutik.

2.FASEA, 3 saio. Informazio esanguratsua eman, aldaketa sustatu eta aldaketa indartu.

4. DBHko dinamizatzaileek 3. DBHko 4 taldetan banatutako 42 ikasleri 3 saio eman zizkieten 2019ko azaro-abendu bitartean. Orokorrean ikasleek balorazio oso ona egin diote saio bakoitzari. Ikasleek saioen bukaeran betetako balorazio fitxen emaitzak jarraian:

SAIO guztietako (3) ikasleen balorazioa:

Ikasleek saio bakoitzari emandako batez besteko nota:

Saioen nota orokorra (1-10)	
1. saioa	7,77
2. saioa	8,18
3. saioa	9,6
Batez bestekoa	8,52

2.faseko hiru saioak oso ondo baloratu dituzte 4 taldeetan parte hartu duten ikasleek, saioen balorazio orokorren **batez bestekoa 8,52** izan delarik. Beraz, balorazio positiboa izan dela ondorioztatu dezakegu proiektuan parte hartu duten ikasleen aldetik. Hala azaldu dute ahoz emandako iritzietan eta idatzizko galdetegietan.

Saioen gaineko bestelako galdera batzuk ere egin dizkiegu eta hemen daude horien erantzunak:

-Zerbait bereziki ongi baloratuko zenukeena?

-Azalpenak, erabilitako materiala, datuak, jolasa...

-Iritzi horien azalpenik eman nahi?

-Azalpen onak izan dira, saioren bat hobeto presta liteke...

3. Aztergaiak

2.faseko 3 saioren aurretik eta bukatutakoan ikasleek **galdetegia** bete dute, horrela beraien **euskararen gaineko pertzepzioen inguruan aldaketarik egon den jakiteko**, hau da, hasiera eta amaierako aldea kalkulatu da. Galdetegia 1 (Erabat ez-ados, Oso gaizki, oso txarra, beti erdaraz) eta 6 (erabat ados, oso ondo, oso ona, beti euskaraz) puntuazioetan oinarrituz, hurrengo 9 atal orokorretan banatuta dago:

		HASTERAKOA	AMAIERAKOA	EMAITZA
ERABILERA	1. Nik euskara erabiltzen dut ikaskideekin	3,26	3,93	0,67
	2. Ikaskideek nirekin euskara erabiltzen dute	3,35	4,06	0,71
GAITASUNA	3. Gaitasun nahikoa dut euskaraz hitz egiteko edozein gairi buruz	4,5	4,9	0,4
EROSOTASUNA	4. Eroso sentitzen naiz euskara hitz egiten dudanean	4,09	4,27	0,18
ALDAKETARAKO KONPROMISOA (norberarena)/ MOTIBAZIOA	5. Ondo iruditzen zait pertsona batek nirekin euskaraz hitz egin nahi duela esatea	4,94	5	0,06
	6. Euskaraz hitz egiteko gogoia dut	3,88	4,09	0,21
	7. Pentsatzen dut zerbait aldatu egin behar dudala euskara gehiago hitz egiteko	3,91	4,09	0,18
KONTROLAGAR RITASUNA	8. Nire esku dago nik euskara gehiago erabiltzea, eta besteek euskara gehiago erabiltzea.	4,29	3,96	-0,33
ROLA	9. Badakit euskara gehiago erabiltzeko aldaketak bideratzen.	3,85	3,87	0,02
TALDEAREN BABESA	10. Ikaskideek ongi baloratzen dute euskara gehiago hitz egitea, eta hitz egiten duena babesten dute.	3,67	3,48	-0,19
ERAKUNDEA	11. Ikastetxeak euskaraz hitz egiteari garrantzia ematen dio	5,08	5,03	0,05
HIZKUNTZA KONTZIENTZIA	12. Euskararen erabilera sustatzeko egitasmoak atseginak eta baliagarriak dira.	3,29	4,06	0,77
	13. Euskara eta hizkuntzak garrantzitsuak dira niretzat.	4,38	4,67	0,29

EROSOTASUNA

14. Zerk eragiten dit deserosotasuna euskara erabiltzean? Oztupoak

-Ingurukoek (beste ikaskideek, lagunek...) ez dute erabiltzen.
-Inguruan euskaraz egiteko ez dut aukera nahikorik.

-Esanguratsua da 14. puntuan jasotako erantzunen errepikapena. Gehienek bi puntu horiek nabarmendu dituzte. Beraien pertzepzioa da ingurukoek oso gutxi egiten dutela euskaraz eta horrek eragozten diela beraiel.

HIZKUNTZA KONTZIENTZIA

15. Euskararen erabilerari buruz dudan iritzia hitz gutxitan

-Ez zait euskara gustatzen.
-Txikitatik erdaraz egin dut.

4. Irakurketa

1- Erabilera

Galdetegia	erabilera (1-6)	
	1.Nik euskara erabiltzen dut ikaskideekin	2.- Ikaskideek nirekin euskara erabiltzen dute
HASIERA	3,26	3,35
AMAIERA	3,93	4,06
ALDEA	0,67	0,71

Saioen ostean, **erabileraren gaineko pertzepzioa** igo egin dela ikus dezakegu. Beraien erabileraren pertzepzioa oso altua ez bada ere, gorantz joan da saioak jaso eta gero. Ikaskideek norberarekin euskara gehiago egiten dutela sentitzen dute; "ikaskideek nirekin euskara erabiltzen dute" galdetuta, **igoera handia** izan da. Motibazio saioen eragina suma daiteke erabileran.

2- Gaitasuna eta erosotasuna

	gaitasuna (1-6)	erosotasuna (1-6)
Galdetegia	3-Gaitasun nahikoa dut euskaraz hitz egiteko edozein gai buruz.	4.-Eroso sentitzen naiz euskaraz hitz egiten dudanean.
HASIERA	4,5	4,09
AMAIERA	4,9	4,27
ALDEA	0,4	0,18

Euskaraz hitz egiteko **gai direla eta eroso sentitzen direla** adierazi dute, bietan 4tik gorako puntuazioa markatu baitute. Saioen ostean, gainera, goranzko joera erakutsi dute. Beraien buruarengan konfidantza gehiago lortu dute.

3- Aldaketarako konpromisoa eta motibazioa

	aldaketarako konpromisoa (norberarena) / motibazioa (1-6)		
Galdetegia	5. Ondo iruditzen zait pertsona batek nirekin euskaraz hitz egin nahi duela esatea	6. Euskaraz hitz egiteko gogoia dut	7. Pentsatzen dut zerbait aldatu egin behar dudala euskara gehiago hitz egiteko
HASIERA	4,94	3,88	3,91
AMAIERA	5	4,09	4,09
ALDEA	0,06	0,21	0,18

Ikasleek beraiei **euskaraz hitz egiteko eskaera luzatzea ondo iruditzen zaien** galdetuta, **5eko** puntuazioa eman diote galderari eta saioen ostean, oraindik altuagoa da pertzepzio hori.

Euskaraz hitz egiteko gogoia dutela adierazi dute, gainera, saioen ostean gehiago.

Euskararen **erabilera areagotzeko zerbait aldatu egin behar dutela** jakin arren, igo egin da pertzepzio hori.

4- Kontrolagarritasuna

	kontrolagarritasuna (1-6)
Galdetegia	8. Nire esku dago besteek ere euskaraz egitea, eta besteek euskara gehiago erabiltzea
HASIERA	4,29
AMAIERA	3,96
ALDEA	-0,33

Aurreko ataleko konpromiso eta motibazioaren haritik, kontrolagarritasunaren pertzepzioan ere **norberak baduela non eragin azpimarratu dute**; puntuazio nahiko altua bada ere, jaitsi egin da. Saioen ostean norberaren esku bakarrik ez dagoela uste dute, hau da, kanpo faktoreek ere eragiten dutela.

5- Rola

rola (1-6)	
Galdetegia	9. Badakit euskara gehiago erabiltzeko aldaketak bideratzen
HASIERA	3,85
AMAIERA	3,87
ALDEA	0,02

Egunerokotasunean, ikasleek badakite euskara gehiago erabiltzeko aldaketak bideratzen, 3tik gorako puntuazioa eman diote. Gorakada apala egon da galdera honetan, agian, **aldaketa hori gauzatzeko erremintak** dituztela jabetu dira.

6- Taldearen babeseta eta erakundea

Taldearen babeseta (1-6)		Erakundea (1-6)
Galdetegia	10. Ikaskideek ongi baloratzen du euskara gehiago hitz egitea, eta hitz egiten duena babesten dute	11. Ikastetxeak euskaraz hitz egiteari garrantzia ematen dio
HASIERA	3,67	5,08
AMAIERA	3,48	5,03
ALDEA	-0,19	-0,05

Ikaskideen eta Barrutialderen **babesaz galdetzean**, ikasleek hausnartu eta horren garrantzia azpimarratu dute, baina beraien inguru hurbilak ez duela behar beste erabiltzen konturatu dira. Aurretik aipatu dugun kanpo faktorea horri dagokio.

Institutuak euskaraz hitz egiteari ematen dion garrantziaz jakitun dira, izan ere, 5etik gorako puntuazioa eman diote galdera honi, hasiera eta bukaera galdetegietan. Jaitsiara egon arren, oso apala izan da.

7- Hizkuntza kontzientzia

hizkuntza kontzientzia (1-6)		
Galdetgia	12. Euskararen erabilera sustatzeko egitasmoak atseginak eta ballagarriak dira	13. Euskara eta hizkuntzak garrantzitsuak dira niretzat
HASIERA	3,29	4,38
AMAIERA	4,06	4,67
ALDEA	0,77	0,29

Euskararen **erabilera areagotzeko ekimenak oso erakargarri/baliagarri** ikusten dituzte ikasleek. Gainera gorakada nabarmena izan du.

8- eusLiderrak tailerraren balorazioa

Galdetgia	Puntuazioa (1-6)
16. Eskaerak egiten ikasi dut	3,51
17. Aurrera begira euskara gehiago erabiliko dut	3,67
18. Nola baloratzen duzu eusLiderrak tailerra (1-6)?	3,67

20. eusLiderrak tailerrari buruz duzun iritzia hitz gutxitan:

Oso ona, entretenigarria, laburregia, saio batzuk gutxi prestatuta...

3. DBH-ko ikasleek oso ondo baloratu dituzte 2.faseko hiru saioak. Beraz, ikasleen balorazioak eta hasiera/bukaerako galdetegietan aitortutakoak kontuan izanik, tailerra gustuko izan dute: 3,67 puntu 6tik.

EKINTZA SOZIALA:

Ekintza soziala aurrera eramateko, proiektuarekin aurrera jarraitu nahi duten galdetu diegu ikasleei eta zentroko arduradunekin koordinatu gara. Izen-emate zerrenda zabaldu genuen, eta 8 ikaslek eman dute izena proiektuarekin aurrera egiteko. Saio horietan, borondatezko ikasleak aritu dira.

2020ko martxoa eta apirilean izan dira ematekotan ekintza soziala prestatzeko saioak. Baina COVID-19a dela eta, 3 saio eman gabe geratu dira; horiek iraila urrian emango dira eta ekintza soziala ere urrian egingo da. Horretarako, 4. DBHko ikasleak aritu dira 3. mailakoen dinamizatzaile, baina, urrian aurtengo 3.DBHkoei zuzenean emango zaizkie saioak ekintza prestatzeko.

Hala ere, interesgarri ikusi dugu apirilera prestatu zituzten ekintzak aipatzea:

- 1. Mosaiko erraldoia prestatu (Barrutialden)**
- 2. Mosaiko erraldoiaren argazkia atera Gernikako punturen batean (bi zentroetako ikasleekin)**

Ekintzak bideratzeko eta koordinazio egokia izateko, irakasleekin egon dira ikasleak, ekintzak ondo eta bata bestearen ostean antolatzeari begira. Bi zentroen arteko koordinazioa AHIZEko teknikariak egin du.

5. Zentroaren balorazioa

Zentroen balorazioa Ekintza soziala egitean osatuko dugu.

6. Ondorio nagusiak

Indarguneak

- Barrutialden III. zikloa ezarri da eta ikasleen balorazioa ona izan da. Ikasleak gustura izan dira.
- Egutegia adosteko eta proiektua aurrera eramateko egondako prestutasuna zentroaren aldetik.
- Ikasleek duten erabileraren pertzepzioa neurtzeko hasiera eta bukaera galdetegiak alderatuz, item gehienetan igoera egon dela ikusten da.
- Laugarren mailako ikasleek hartu duten lidergoa saioak dinamizatzeko. Saioen balorazioek 3. mailakoengan eragitea lortu dutela ikusi da.
- Hizkuntzen aurreiritzien gainean eztabaidatu da, eta iritzi batzuk aldatzea lortu da.
- Aldaketak ikusteko pertsona bakoitzaren koherentziaren garrantzia landu eta ulertu da.

Hobetzekoak

- 2019/20 ikasturtean IV. zikloa abiatzea komeniko litzateke, lidergo katearen eraginkortasunarekin jarraitzeko.
- COVID-19aren ondorioz ekintza soziala etenda geratu da.

7. Egoera berria dela eta

AHIZE-AEK hizkuntza aholkularitza proiektuak egokitzeko lanean ari da, balizko beste konfinamendu egoera bat errepikatuko balitz beharrezkoak diren baliabide eta plataformak sortzen proiektuak dituen helburuak lortzea bermatzeko. Gure nahia proiektuekin aurrera jarraitzea da, hori egin ahal izateko beharrezkoak diren tresnak eskaintzea izango da gure lehentasuna. Prest gaituzue zuen beharrak eta iradokizunak entzun eta aztertzeko.

Gernika BHI

Balorazio txostena



III. zikloa
garena izateko tailerra

eusLiderrak



2020ko ekaina

0. Aurkibidea

1. SARRERA.....	03. or
2. BALORAZIO OROKORRA.....	04. or
3. AZTERGAIAK.....	05. or
4. IRAKURKETA.....	07. or
5. ZENTROAREN BALORAZIOA	10. or
6. ONDORIO NAGUSIAK	11. or
7. EGOERA BERRIA DELA ETA.....	11. or

1. Sarrera

Hizkuntza ohiturak aldatzeak, beste edozein ohitura aldatzeak bezala, ahalegin bat eskatzen du. Ez da oraindik asmatu horren ordezeko pilularik. Baina aldaketa hori modu **atsegin** eta **dibertigarrian** egin daiteke, ez du zertan sufrimenduan oinarriturik egon. Horretarako, garrantzitsua da aldaketa pausoz pauso ematea, unean uneko **helburu lorgarri**ei eutsiz, eta, **parte hartzaileen interes** arlo eta **motibazioetatik** ahalik eta gertuen.

Ikerketek erakutsi dute jendearen portaera aldatzeko bideak badirela. Gainera, zigorrik gabe norberak borondatez egin dezakeela aldaketa. Hainbat arlotan ikus dezakegu hori: kontsumoan, ohitura osasungarrien hedapenean... Azken urteetan aurrerapen handiak eman dira portaeren eta gizartearen psikologian, eta horietatik edan du Ahize-AEK hizkuntza aholkularitzak hizkuntza portaerak aldatzeko egitasmoa martxan jartzeko.

Horiek horrela, 2017-18 ikasturtean Gernikako institutuak eta Barrutialde institutuak, Gernika-Lumoko Udalarekin eta Ahize-AEK hizkuntza aholkularitzarekin, eusLiderrak egitasmoaren 1. zikloa martxan jarri zuen Gernikako institutuko eta Barrutialde institutuko 3.DBHko ikasleen artean erabilera informala sustatzeko helburuarekin. Egitasmo ziklikoa da eusLiderrak, eta lehendabiziko zikloan erabileran eragin dugun aztertzen da. 2018-19 ikasturtean 2.zikloa burutu zen.

2019-20 ikasturtean, **eusLiderrak tailerraren 3. zikloa** abiatu da.

eusLiderrak egitasmoa 2. ziklotik aurrera berezia da, izan ere, aurreko zikloan tailerra jaso zuten ikasleak, aritzen direlako dinamizatzaile, beraiek hartzen dute tailerraren gidaritza, Ahize-AEK-ko teknikarien eskutik horretarako formazioa jaso ondoren.

Aurten, 2019-20 ikasturtean, aipatutako **3. zikloa jarri dute martxan** bi institutuek. Eta iaz 3. DBHn tailerra jaso zuten eusLiderrak, aurten 4. mailan daudenak, aritu dira 3. mailakoei tailerra ematen.

eusLiderrak egitasmoaren **3.zikloko** 1. ("moskeo" kanpaina) eta 2. faseak (3 saioak) 2019ko azarotik abendura bideratu dira. Gernika institutuan, 9 taldetan eman dira tailerrak, zehazki 102 ikasleri. **3.zikloko** 3.fasea (ekintza soziala) otsaila-apirila bitartean garatu behar zuten ikasleek Ahizeren aholkularitzarekin, baina COVID-19a dela eta, etenda geratu da eta 3. fasea irail-urrian gauzatuko dugu.

Txosten honetan eskerrak eman nahi dizkiegu 4. DBHn eusLiderrak egitasmoan dinamizatzaile aritu diren **ikasle eusLiderreri**, egin duten lan oparoarengatik eta horretarako izan duten prestutasunagatik. Benetako lan txukuna egin dute.

Ikasleez gain, eskerrak eman nahi dizkiogu Gernika institutuko Aida Beaskoetxeari, behar izan dugun une guztietan emandako laguntzagaririk. Bestetik, Gernika-Lumoko Udalari eskerrak eman nahi dizkiogu, 3. ikasturtez, gazteei begirako eusLiderrak tailerraren alde egindako apustuagaririk.

2. Balorazio orokorra

Proiektuaren balorazioa positiboa da. 1. eta 2. faseko ekintza guztiak burutu dira eta eragina izan dute. Jarraian proiektuaren balorazioak atalez atal:

1.FASEA, "moskeo" kanpaina:

Ikasleek balorazio positiboa egin dute. Hasiara batean ikusitako irudiak, euskaraz hitz egiten zuten ikasleei bestelako azalpenik gabe piruleta urdina eman... ekintzek balorazio positiboa izan dute. Balorazio positibo hori 3.faseko saioetan jaso da ikasleen eskutik.

2.FASEA, 3 saio. Informazio esanguratsua eman, aldaketa sustatu eta aldaketa indartu.

4. DBHko dinamizatzailerek 3. DBHko 9 taldetan banatutako 102 ikasleri 3 saio eman zizkieten 2019ko azaro-abendu bitartean. Orokorrean ikasleek balorazio oso ona egin diote saio bakoitzari. Ikasleek saioen bukaeran betetako balorazio fitxen emaitzak jarraian:

SAIO guztietako (3) ikasleen balorazioa:

Ikasleek saio bakoitzari emandako batez besteko nota:

Saioen nota orokorra (1-10)	
1. saioa	8,8
2. saioa	8,7
3. saioa	8,8
Batez bestekoa	8,8

2.faseko hiru saioak oso ondo baloratu dituzte 9 taldeetan parte hartu duten ikasleek, saioen balorazio orokorren **batez bestekoa 8,8** izan delarik. Beraz, balorazio positiboa izan dela ondorioztatu dezakegu proiektuan parte hartu duten ikasleen aldetik. Hala azaldu dute ahoz emandako iritzietan eta idatzizko galdetegietan.

Saioen gaineko bestelako galdera batzuk ere egin dizkiegu eta hemen daude horien erantzunak:

-Zerbait bereziki ongi baloratuko zenukeena?

-Egindako lan guztia. Irakasleak. Giroa. Dibertigarria. Aurkezpena. Azalpen dibertigarri eta hurbilak...

-Iritzi horien azalpenik eman nahi?

-Datu asko eta laburregia. Asko ikasi dut.

3. Aztergaiak

2.faseko 3 saioren aurretik eta bukatutakoan ikasleek **galdetegia** bete dute, horrela beraien **euskararen gaineko pertzepzioen inguruan aldaketarik egon den jakiteko**, hau da, hasiera eta amaierako aldea kalkulatu da. Galdetegia 1 (Erabat ez-ados, Oso gaizki, oso txarra, beti erdaraz) eta 6 (erabat ados, oso ondo, oso ona, beti euskaraz) puntuazioetan oinarrituz, hurrengo 9 atal orokorretan banatuta dago:

		HASIERAKOA	AMAIERAKOA	EMAITZA
ERABILERA	1. Nik euskara erabiltzen dut ikaskideekin	4,04	4,58	0,54
	2. Ikaskideek nirekin euskara erabiltzen dute	3,93	4,51	0,58
GAITASUNA	3. Gaitasun nahikoa dut euskaraz hitz egiteko edozein gairi buruz	5,16	5,21	0,05
EROSOTASUNA	4. Eroso sentitzen naiz euskara hitz egiten dudanean	4,88	5,02	0,14
ALDAKETARAKO KONPROMISOA (norberarena)/ MOTIBAZIOA	5. Ondo iruditzen zait pertsona batek nirekin euskaraz hitz egin nahi duela esatea	5,2	5,29	0,09
	6. Euskaraz hitz egiteko gogoia dut	4,35	4,75	0,4
	7. Pentsatzen dut zerbait aldatu egin behar dudala euskara gehiago hitz egiteko	3,62	4,03	0,41
KONTROLAGAR RITASUNA	8. Nire esku dago nik euskara gehiago erabiltzea, eta besteek euskara gehiago erabiltzea.	4,46	4,82	0,36
ROLA	9. Badakit euskara gehiago erabiltzeko aldaketak bideratzen.	4,06	4,72	0,66
TALDEAREN BABESA	10. Ikaskideek ongi baloratzen dute euskara gehiago hitz egitea, eta hitz egiten duena babesten dute.	4,06	4,58	0,52
ERAKUNDEA	11. Ikastetxeak euskaraz hitz egiteari garrantzia ematen dio	5,26	5,26	0
HIZKUNTZA KONTZIENTZIA	12. Euskararen erabilera sustatzeko egitasmoak atseginak eta baliagarriak dira.	4,38	4,83	0,45
	13. Euskara eta hizkuntzak garrantzitsuak dira niretzat.	5	5,23	0,23

EROSOTASUNA

14. Zerk eragiten dlt deserosotasuna euskara erabiltzean? Oztupoak

- Ingurukoek (beste ikaskideek, lagunek...) ez dute erabiltzen.
- Euskaraz hitz egiteko ohitura ezak.
- Inguruan euskaraz egiteko ez dut aukera nahikorik.
- Ez daukat gaitasun nahikorik.

-Esanguratsua da 14. puntuan jasotako erantzunen errepikapena. Gehienek bi puntu horiek nabarmendu dituzte. Oso lotuta doaz erantzun biak, elkar elikatzen dira. Saiok hori apurtzea lortu dute.

HIZKUNTZA KONTZIENTZIA

15. Euskararen erabilerari buruz dudan Iritzia hitz gutxitan

- Jendeak ez du askorik erabiltzen institutuan eta beharrezkoa da.
- Jendeak gero eta gutxiago egiten du.
- Euskara gehiago erabili behar dugu.

-Euskararen erabilerari buruz galdetzean ikusten dugu saioak eta gero kontzientzian zerbait piztu zaiela, euskararen aldeko jarrera.

4. Irakurketa

1- Erabilera

Galdetegia	erabilera (1-6)	
	1.Nik euskara erabiltzen dut ikaskideekin	2.- Ikaskideek nirekin euskara erabiltzen dute
HASIERA	4,04	3,93
AMAIERA	4,58	4,51
ALDEA	0,54	0,58

Tailerraren 2. fasea jaso ondoren, hau da, 3 motibazio saioak jasota, argi ikusten dugu ikasleen **erabileraren gaineko pertzepzioa** igo egin dela, puntu erdi gainera. Beraien erabileraren pertzepzioa altua da, gainera gorantz joan da saioak jaso eta gero. Igoera hori nabarmena da, ikaskideek norberarekin euskara gehiago egiten dutela sentitzen

dutelako, "ikaskideek nirekin euskara erabiltzen dute" galdetuta, **igoera nahiko handia** izan da.

2- Gaitasuna eta erosotasuna

	gaitasuna (1-6)	erosotasuna (1-6)
Galdetegia	3-Gaitasun nahikoa dut euskaraz hitz egiteko edozein gairi buruz.	4.-Eroso sentitzen naiz euskaraz hitz egiten dudanean.
HASIERA	5,16	4,88
AMAIERA	5,21	5,02
ALDEA	0,05	0,14

Gaitasunari eta erosotasunari buruz galdetzerakoan, 3 motibazio saioak jaso aurretik ere, euskaraz hitz egiteko **gai direla eta eroso sentitzen direla** adierazi dute, bietan 5 inguruko puntuazioa. Ez dute arazorik euskaraz hitz egiteko. Saioen ostean, gainera, modu apalean izan bada ere, igoera egon dela ikus dezakegu.

3- Aldaketarako konpromisoa eta motibazioa

	aldaketarako konpromisoa (norberarena) / motibazioa (1-6)		
Galdetegia	5. Ondo iruditzen zait pertsona batek nirekin euskaraz hitz egin nahi duela esatea	6. Euskaraz hitz egiteko gogoia dut	7. Pentsatzen dut zerbait aldatu egin behar dudala euskara gehiago hitz egiteko
HASIERA	5,2	4,35	3,62
AMAIERA	5,29	4,75	4,03
ALDEA	0,09	0,4	0,41

Hurrengo hiru galderek aldaketarako prestutasuna dutela adierazten dute, konpromisoa dutela.

Ikasleek beraiei **euskaraz hitz egiteko eskaera luzatzea ondo iruditzen zaien** galdetuta, **5etik gorako** puntuazioa eman diote galderari eta saioen ostean, oraindik altuagoa da pertzepzio hori.

Euskaraz hitz egiteko gogoaren gainean galdetuta, pertzepzio nahiko altua dute, eta gorakada izan du saioen ostean.

Euskararen **erabilera areagotzeko zerbait aldatu egin behar dutela badakite;** saioen ostean igo egin da pertzepzio hori.

4- Kontrolagarritasuna

kontrolagarritasuna (1-6)	
Galdetegia	8. Nire esku dago besteek ere euskaraz egitea, eta besteek euskara gehiago erabiltzea
HASIERA	4,46
AMAIERA	4,82
ALDEA	0,36

Aurreko ataleko konpromiso eta motibazioaren haritik, kontrolagarritasunaren pertzepzioan ere **norberak baduela non eragin azpimarratu dute**; puntuazio nahiko altua erakutsi dute galdera horretan eta goranzko joera adierazi dute.

5- Rola

rola (1-6)	
Galdetegia	9. Badakit euskara gehiago erabiltzeko aldaketak bideratzen
HASIERA	4,06
AMAIERA	4,72
ALDEA	0,66

Egunerokotasuneko roletan, norbanakoak euskararen erabileran euskara gehiago egiteko zelan negoziatu badakite ikasleek, hasieratik eman baitiote 4tik gorako puntuazioa. Gorakada nabarmena egon da galdera honetan, agian, **aldaketa hori gauzatzeko erreminta gehiago** dituztela jabetu dira.

6- Taldearen babeseta eta erakundea

Galdetegia	Taldearen babeseta (1-6)	Erakundea (1-6)
	10. Ikaskideek ongi baloratzen du euskara gehiago hitz egitea, eta hitz egiten duena babesten dute	11. Ikastetxeak euskaraz hitz egiteari garrantzia ematen dio
HASIERA	4,06	5,26
AMAIERA	4,58	5,26
ALDEA	0,52	0

Ikaskideen eta Gernika institutuaren **babesaz galdetzean**, ikasleek hausnartu eta horren garrantzia azpimarratu dute. Jakitun dira ikaskideek begi onez ikusten dutela euskara aehiaa erabiltzea.

Institutuak euskaraz hitz egiteari ematen dion garrantziaz jakitun dira, izan ere, 5etik gorako puntuazioa eman diote galdera honi, hasiera eta bukaera galdetegietan.

7- Hizkuntza kontzientzia

hizkuntza kontzientzia (1-6)		
Galdetegia	12. Euskararen erabilera sustatzeko egitasmoak atseginak eta baliagarriak dira	13. Euskara eta hizkuntzak garrantzitsuak dira niretzat
HASIERA	4,38	5
AMAIERA	4,83	5,23
ALDEA	0,45	0,23

Euskararen **erabilera areagotzeko ekimenak oso erakargarri/baliagarri** ikusten dituzte ikasleek. Gainera gorakada nabarmena izan du saioen ostean.

8- eusLiderrak tailerraren balorazioa

Galdetegia	Puntuazioa (1-6)
16. Eskerak egiten ikasi dut	4,79
17. Aurrera begira euskara gehiago erabiliko dut	4,76
18. Nola baloratzen duzu eusLiderrak tailerra (1-6)?	5,11

20. eusLiderrak tailerrari buruz duzun iritzia hitz gutxitan:

Bikain, entretenigarria, oso ona, Eusliderrak beharrezkoa da euskara erabiltzera bueltatzeko, oso ondo egon da, asko gustatu zait, gehiago egin beharko litzateke, oso erabilgarria, interesgarria, euskara gehiago egiteko baliagarria...

3. DBH-ko ikasleek oso ondo baloratu dituzte 2.faseko hiru saioak. Beraz, ikasleen balorazioak eta hasiera/bukaerako galdetegietan aitortutakoak kontuan izanik, tailerra oso gustuko izan dute: 5,11 puntu 6tik.

EKINTZA SOZIALA:

Ekintza soziala aurrera eramateko, proiektuarekin aurrera jarraitu nahi duten galdetu diegu ikasleei eta zentroko arduradunekin koordinatu gara. Izen-emate zerrenda zabaldu genuen, eta 16 ikaslek eman dute izena proiektuarekin aurrera egiteko. Saio horietan, borondatezko ikasleak aritu dira.

2020ko otsaila eta apirilean izan dira ematekotan ekintza soziala prestatzeko saioak. Baina COVID-19a dela eta, 3 saio eman gabe geratu dira; horiek iraila-urrian emango dira eta ekintza soziala ere urrian egingo da. Horretarako, 4. DBHko ikasleak aritu dira 3. mailakoen dinamizatzaile, baina, urrian aurtengo 3.DBHkoei zuzenean emango zaizkie saioak ekintza prestatzeko.

Hala ere, interesgarri ikusi dugu apirilerako prestatu zituzten ekintzak aipatzea:

- 1. Murala berriztatu (Insitutuan)**
- 2. Bertsoak (Institutuan)**
- 3. Kalejiran Barrutialdekoekin elkartu Gernika erdialdera hurbiltzeko**
- 4. "Lip dub" bat egin Gernika erdialdeko punturen batean.**

Ekintzak bideratzeko eta koordinazio egokia izateko, irakasleekin egon dira ikasleak, ekintzak ondo eta bata bestearen ostean antolatzeari begira. Bi zentroen arteko koordinazioa AHIZEko teknikariak egin du.

5. Zentroaren balorazioa

Zentroen balorazioa Ekintza soziala egitean osatuko dugu.

6. Ondorio nagusiak

Indarguneak

- Barrutialden III. zikloa ezarri da eta ikasleen balorazioa ona izan da. Ikasleak gustura izan dira.
- Egutegia adosteko eta proiektua aurrera eramateko egondako prestutasuna zentroaren aldetik.
- Ikasleek duten erabileraren pertzepzioa neurtzeko hasiera eta bukaera galdetegiak alderatuz, item gehienetan igoera egon dela ikusten da.
- Laugarren mailako ikasleek hartu duten lidergoa saioak dinamizatzeko. Saioen balorazioek 3. mailakoengan eragitea lortu dutela ikusi da.
- Hizkuntzen aurreiritzien gainean eztabaidatu da, eta iritzi batzuk aldatzea lortu da.
- Aldaketak ikusteko pertsona bakoitzaren koherentziaren garrantzia landu eta ulertu da.

Hobetzekoak

- 2019/20 ikasturtean IV. zikloa abiatzea komeniko litzateke, lidergo katearen eraginkortasunarekin jarraitzeko.
- COVID-19aren ondorioz ekintza soziala etenda geratu da.

7. Egoera berria dela eta

AHIZE-AEK hizkuntza aholkularitza proiektuak egokitzeko lanean ari da, balizko beste konfinamendu egoera bat errepikatuko balitz beharrezkoak diren baliabide eta plataformak sortzen proiektuak dituen helburuak lortzea bermatzeko. Gure nahia proiektuekin aurrera jarraitzea da, hori egin ahal izateko beharrezkoak diren tresnak eskaintzea izango da gure lehentasuna. Prest gaituzue zuen beharrak eta iradokizunak entzun eta aztertzeko.





gernika-lumoko
euskara zerbitzua



II. ERANSKINA

Ebaluazio Txostena 2019-2020

GAZTE ETORKINEN IKASTAROA 2019-2020



gernika-lumoko
euskara zerbitzua



Ebaluazio Txostena 2019-2020

1. DATU OROKORRAK

Ikasturtea:	2019-2020
Eskaintza mota:	Gazte etorkinen euskalduntzea
Irakaslea:	Arantzazu Guarrotxena Zearra
Ikasgua :	BUSTURIALDEKO AEK
Herria:	Gernika-Lumo
Herrialdea:	Bizkaia
Modulazioa:	60 ordu
Ordu errealak:	45 ordu
Hasiera data eta bukaera data:	2019-11-11/2020-03-11
Taldearen maila:	A0A0-A1A1

2. IKASTALDEAREN BALORAZIOA

- **Hasitako ikasleen zerrenda eta jasotako ordu kopurua**

	Ikaslearen Izen-Abizenak	Jasotako orduak	Abiapuntua
1	Juan Victor Almeida Soares Mertzede Ikastetxea		A1A0
2	Sebastian Udrea Mertzede Ikastetxea		A1A0
3	Jasmina Udrea Mertzede Ikastetxea		A0A0
4	Husnain Mohamed Mertzede Ikastetxea		A0A0
5	Alishba Noreen Mertzede Ikastetxea		A0A0
6	Jony Mertzede Ikastetxea		A1A0
7	Sheila Zurita Coca Mertzede ikastetxea		A0A0
8	Ana Botu Seber Altube ikastola		A0A0
9	Martha Sofia Vocal Arauz Seber Altube ikastola		A1A0
10	Adil Arsheed Noreen Seber Altube ikastola		A0A0
11	Venus Cortez Condello San Fidel Ikastola		A1A0
12	Daniel Horea Radu San Fidel Ikastola		A0A0
13	Abdul Raffay San Fidel Ikastola		A0A0

Ebaluazio Txostena 2019-2020

14	Jennifer Lopez Torres San Fidel Ikastola		A1A1
15	Yuki Kahori Rivero San Fidel Ikastola		A0A0
16	Tomas Bucaro San Fidel Ikastola		A0A0
17	Tiago Mertzede Ikastetxea		A0A0
18	Emre Mertzede Ikastetxea		A1A1

• **Hasierako ikastaldearen helburuen betetze maila**

Helburua guztiz bete bada **5** eta inondik inora ez bada bete **1**

	Ikaslearen izen-abizenak	1	2	3	4	5
1	Juan Victor Almeida Soares		x			
2	Sebastian Udrea	x				
3	Jasmina Udrea		x			
4	Husnain Mohamed			X		
5	Alishba Noreen			X		
6	Jony		X			
7	Sheila Zurita Coca			X		
8	Ana Botu				X	
9	Martha Sofia Vocal Arauz			X		
10	Adil Arsheed Noreen		X			
11	Venus Cortez Condello	X				
12	Daniel Horea Radu				X	
13	Abdul Raffay			X		
14	Jennifer Lopez Torres			X		
15	Yuki Kahori Rivero	X				
16	Tomas Bucaro		X			
17	Tiago		X			
18	Emre	X				

Ebaluazio Txostena 2019-2020

3. DATU ZEHATZAK

Helburuen betetze mailaren ikasle zerrenda oinarritzat hartuta, ikasle bakoitzari dagokion zenbakiaren arabera, 1etik 5era baloratuta:

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18
Puntualtasuna	1	1	1	3	4	2	5	5	5	5	1	4	5	3	3	3	3	2
Asistentzia	1	1	2	4	3	3	5	5	5	5	2	5	5	3	1	2	2	2
Aprobetxamendua	2	1	2	3	3	2	3	4	3	2	2	4	3	3	1	2	2	2
Motibazioa/ Jarrera	3	1	4	4	5	3	4	4	4	2	2	5	3	4	2	3	3	3
Partehartzea	3	3	3	3	3	3	4	4	3	2	3	5	3	4	2	3	2	3
Erabilera	2	2	2	2	2	1	2	3	2	2	2	3	3	3	1	2	2	3
OROKORREAN	2	1	2	3	3	2	3	4	3	2	2	4	3	3	1	2	2	2

4. IKASLE BAKOITZAREN BALORAZIOA

IKASLEA:	Joao Victor Almeida Soares
HASIERA MAILA	A1A0
BUKAERA MAILA	A1A0
JASOTAKO ORDUAK:	17
ESKURATU DITUEN GAITASUNEN DESKRIBAPENA:	Ulermenean aurrera egin duela dirudi, ematen zaizkion instrukzioak eta oharrak ulertzen ditu. Lexikoa eta forma konplexuagoak erabiltzea lortzen du. Arreta jartzen duenean, lanak egoki amaitzea lortzen du.
HOBETU BEHARREKOAK:	Asistentzia eta erabilera.
OHARRAK:	Asistentzia eskasa izan zuen, baina iazkoa baino hobea eta jarrera hobea izan du.

IKASLEA:	Sebastian Udrea
HASIERA MAILA	A1A0
BUKAERA MAILA	A1A0
JASOTAKO ORDUAK:	20
ESKURATU DITUEN GAITASUNEN DESKRIBAPENA:	Aprobetxamendurik ez duela egin esango nuke. Osasunagatik eta bestelakoengatik asistentzia txarra izan du, eta eskolan ez du arretarik jartzen. Jarrera txarrik ez dauka, baina lanik ez du egiten.
HOBETU BEHARREKOAK:	



gernika-lumoko
euskara zerbitzua



Ebaluazio Txostena 2019-2020

IKASLEA:	Jasmina Udrea
HASIERA MAILA	AOA0
BUKAERA MAILA	AOA0
JASOTAKO ORDUAK:	23
ESKURATU DITUEN GAITASUNEN DESKRIBAPENA:	Jarrera txarrik ez dauka, baina eskoletan interesik ez dauka. Aurten zerbait gehiago aritu da lanean ondoan zuen lagunaren eraginez. Asistentzia eskasa izan du.
HOBETU BEHARREKOAK:	
OHARRAK:	

IKASLEA:	Husnain Mohamed
HASIERA MAILA	AOA0
BUKAERA MAILA	AOA0
JASOTAKO ORDUAK:	42
ESKURATU DITUEN GAITASUNEN DESKRIBAPENA:	Zenbait hitz eta esaldi labur ulertzen ditu, baina sortzeko gaitasunik ez. Oraindik ingelesa erabiltzen du besteokin komunikatzeko. Jarrera ona du, eta erritmoa jarraitzen saiatu da, baina ulermena ere oraindik eskasa dauka.
HOBETU BEHARREKOAK:	
OHARRAK:	

IKASLEA:	Alishba Noreen
HASIERA MAILA	AOA0
BUKAERA MAILA	
JASOTAKO ORDUAK:	42
ESKURATU DITUEN GAITASUNEN DESKRIBAPENA:	Nebak bezala, zenbait hitz eta esaldi labur ulertzen ditu, baina sortzeko gaitasunik ez. Oraindik ingelesa erabiltzen du besteokin komunikatzeko. Jarrera oso ona du, eta erritmoa jarraitzen saiatu da, baina ulermena ere oraindik eskasa dauka.
HOBETU BEHARREKOAK:	
OHARRAK:	

IKASLEA:	Sheila Zurita Coca
HASIERA MAILA	AOA0
BUKAERA MAILA	AOA0
JASOTAKO ORDUAK:	44
ESKURATU DITUEN GAITASUNEN DESKRIBAPENA:	Iaz baino ulermen hobea zuen, eta lan egiteko autonomoagoa izan da. Jarrera oso ona izan duen eta ikasle motibatua izan den arren, bere mailaren helburuak ez ditu bete.
HOBETU BEHARREKOAK:	Bere kontura lan egin behar du eta inguruko euskaldunekin elkar-eraginean aritu. Ikasteko teknikak edo estrategiak landu behar ditu.
OHARRAK:	

IKASLEA:	Ana Botu
HASIERA MAILA	AOA0
BUKAERA MAILA	AOA0
JASOTAKO ORDUAK:	44
ESKURATU DITUEN GAITASUNEN DESKRIBAPENA:	Oinarrizko lexikoa eta esamolde batzuk erabil ditzake. Oso langilea da eta jarrera ona du, hortaz, berehala egingo du aurrera.
HOBETU BEHARREKOAK:	Bere kontura lan egin behar du eta inguruko euskaldunekin elkarreraginean aritu.
OHARRAK:	

IKASLEA:	Martha Sofia Vocal Arauz
HASIERA MAILA	A1A0
BUKAERA MAILA	A1A0
JASOTAKO ORDUAK:	30
ESKURATU DITUEN GAITASUNEN DESKRIBAPENA:	Ezer gutxi aurreratu du. Boliviara itzuli zen, ez baitzen hemengo bizimodu edo egoerara moldatu.
HOBETU BEHARREKOAK:	
OHARRAK:	

IKASLEA:	Adil Arsheed Noreen
HASIERA MAILA	A0A0
BUKAERA MAILA	A0A0
JASOTAKO ORDUAK:	42
ESKURATU DITUEN GAITASUNEN DESKRIBAPENA:	Ulermena hobetu du, ohiko galderak ulertzen ditu eta erantzuteko gai da, baina ez mailaren helburuak betetzeko beste. Arreta jartzea kostatzen zaio bereziki.
HOBETU BEHARREKOAK:	

IKASLEA:	Venus Cortez Condello
HASIERA MAILA	A0A0
BUKAERA MAILA	A0A0
JASOTAKO ORDUAK:	18
ESKURATU DITUEN GAITASUNEN DESKRIBAPENA:	Asistentzia eskasa izan du, bestelakoei eman die lehentasuna. Ez du eskolarik aprobetxatu.
HOBETU BEHARREKOAK:	
OHARRAK:	

IKASLEA:	Daniel Horea Radu
HASIERA MAILA	A0A0
BUKAERA MAILA	A1A0
JASOTAKO ORDUAK:	42
ESKURATU DITUEN GAITASUNEN DESKRIBAPENA:	Jarrera ona dauka, eta eskolak aprobetxatzen saiatu da. Ulermena hobetu du, batez ere, eta ezagutza handiagoa dauka orain, baina hitz egiteko segurtasunik ez. Hitz egiteko zirikatuz gero, gai da eguneroko galdera arruntei erantzuteko.
HOBETU BEHARREKOAK:	
OHARRAK:	

IKASLEA:	Abdul Raffay
HASIERA MAILA	AOA0
BUKAERA MAILA	AOA0
JASOTAKO ORDUAK:	44
ESKURATU DITUEN GAITASUNEN DESKRIBAPENA:	Oinarrizko hitz batzuk ulertzen eta erabiltzen ditu. Eskolako erritmoa jarraitzeko ahalegina egiten du, baina ikasteko zenbait arazo ditu.
HOBETU BEHARREKOAK:	
OHARRAK:	Jarrera arazoak ditu besteokin, baina erdialdera lasaiago eta errespetuz jokatzeko hasi zen irakasleok berarekin berba egin ostean. Oso urduri egoten da. Konplexua, baina ikasteko gogoia dauka.

IKASLEA:	Jennifer Lopez Torres
HASIERA MAILA	A1A1
BUKAERA MAILA	A1A1
JASOTAKO ORDUAK:	27
ESKURATU DITUEN GAITASUNEN DESKRIBAPENA:	Ikastaroa ez du behar bezala aprobetxatu ikasgelan lagunekin egoteagatik, baina jarrera ona dauka. Ulermena ona dauka eta sortzeko gaitasuna, baina ez ditu helburuak bete.
HOBETU BEHARREKOAK:	
OHARRAK:	

IKASLEA:	Yuki Kahori Rivero
HASIERA MAILA	AOA0
BUKAERA MAILA	AOA0
JASOTAKO ORDUAK:	18
ESKURATU DITUEN GAITASUNEN DESKRIBAPENA:	Etorri berria zen, eta ez du interesik erakutsi. Taldea ez zen egokia berak ikasteko; izan ere, arreta gehiago behar zuen, eta lagunarekin ondoan ez du lanik egin.
HOBETU BEHARREKOAK:	
OHARRAK:	

IKASLEA:	Tomas Bucaro
HASIERA MAILA	A0A0
BUKAERA MAILA	A0A0
JASOTAKO ORDUAK:	21
ESKURATU DITUEN GAITASUNEN DESKRIBAPENA:	Yukiren antzeko egoera izan du berak ere eta ez du lanerako ahaleginik egin. Hala ere, oinarritzko instrukzioak ulertzeko gai da.
HOBETU BEHARREKOAK:	
OHARRAK:	

IKASLEA:	Tiago
HASIERA MAILA	A0A0
BUKAERA MAILA	A0A0
JASOTAKO ORDUAK:	21
ESKURATU DITUEN GAITASUNEN DESKRIBAPENA:	Beranduago hasi zen lehengusinak ekarrita. Jarrera ona izan du, baina galduta ibili da jarraitu ezinik.
HOBETU BEHARREKOAK:	

IKASLEA:	Emre
HASIERA MAILA	A1A1
BUKAERA MAILA	A1A1
JASOTAKO ORDUAK:	18
ESKURATU DITUEN GAITASUNEN DESKRIBAPENA:	Talde honetan ez zuen egon behar, izatez, baina irakasleak hala aginduta etorri zen. Aurreko urteetako ikaslea da, talde aurreratuagoan egondakoa. Aurten asistentzia eskasa izan zuen, birritan joan zen aitarekin bidaiari. Ez du aprobetxatu ikastaroa eta ez zen berarentzako talde egokia.
HOBETU BEHARREKOAK:	
OHARRAK:	